

EUSKARAREN JATORRIA

Koldo Urrutia (2009.7.9)

(...)

Euskara Kantabriko eta Pirinioen ertz bateko hizkuntza

(Joseba) Lakarraren (filologoaren) esaldi interesgarria heltzeke dago: "Gurea, ez Kantabriko eta Pirinioen ertz bateko hizkuntza txiki askoa, baizik eta Europa osoa eta areago estaltzen zuen erraldoiaren oinordeko!" "Historiaurre loriatsu hori sasi-antzekotasun eta sasi-istorio hauen gainean eraiki". Esaldi hau artikulua hasieran aipatu dugun aurreiritzien laburpen ezin hobe da.

Euskararen egoera gero eta txarragoa egon denean (orain 500 urte, foruak galdu ondorengo zentralismo ikaragarriak...) orduan eta apologista handiagoak izan ditu euskarak. Erresistentzia moduko erantzuna zen, gure hizkuntza ezerezean utzi nahi izan zutenei erantzun bat eman ahal izateko. Hizkuntzatik erantzun zuten, ekonomiatik edo politikatik ezin izan zelako egoera horietan.

Apologistek euskara iberiar penintsula osoko hizkuntza zaharra izan zela zioten, hizkuntza osatua, ona... babestu beharrekoa. Baina ideia hori Mitxelenak bota zuen behera, euskarak inguruko hizkuntzekin loturarik ez zuela esanez eta euskararen historia latinak eragindako bilakaeratik abiatuz, hau da, azken 2.000 urte bakarrik landuz.

Orain 25 urte Mitxelenak hori planteatu zuenean, iritzi hori ondo egon liteke. Baina, Joseba jauna, euri asko egin du geroztik eta kontuan hartu beharreko ikerketa asko egin dira azken urteotan. Eta, barregarria badirudi ere, egindako ikerketa berri horietako askok orain mende eta erdi luze izan genituen apologistek esandako gauza askori arrazoi eman bide diete. Ikus ditzagun.

Stephen Oppenheimer

Oxford-eko Unibertsitateko irakasle honek, Britainia Handia eta Irlandako 10.000 biztanleri ADN aztertu eta gero, honako ondorioa atera du: Britainia Handiko biztanleak, jatorriz, iberiar penintsulatik datozela. Informazio guzti hori The Origins of the British liburuan azaltzen du eta hasierako mapa ezin interesgarriagoa da: penintsulatik Britainia Handirako gezi nagusiak Euskal Herria duelako abiapuntua. Inork ez du zalantzan jarri egindako ikerketa hau baina, harrigarria bada ere, ikerketa argitaratu eta bi urte luze pasatu ondoren Oppenheimer ez da inoiz Euskal Herrira hitzaldi bat emateko gonbidatua izan, eta unibertsitate mailan erabat ezezaguna da. Ikerketa hau indizio zientifikoa ote da?

Oxford-eko genetistak, ADN frogekin, azaldu du azken glaziazioan (duela 16.000 urte arte) Europa gehiena izotzez estalita egon zenean gizakia desagertu zela ia Garonatik iparrera. Garai hartan bizitzeko leku bakarrenetakoa European Kantabria-Euskal Herria-Akitania

ingurunea zen, Ukraina-Balkanekin batera. Hortik abiatu ziren Britainia Handia eta Irlanda populatu zutenak.

Alfontso Martinez Lizarduikoa

EHUko irakaslea den Alfontso, atzerritar ikerleek egindako lan batzuk aztertu ditu sakonki, berak idatzitako Euskaldunen jatorria populazioen genetikaren argitan liburuan. Liburuan ikerketa bat baino gehiago aipatzen badu ere, bakarra ekarri dugu hona:

"Besteak beste, European izandako migrazioen ikerketari dagokionez, 37 ikertzailez osaturiko nazioarteko talde batek, Huddersfieldeko (Ingalaterra) Unibertsitateko Martin Richards genetista eboluzionista buru zuela, mtDNAr buruz eskuragarri ziren datu guztiak bildu eta Europako historiaurreari dagokionez ordura arte buruturiko ikerketa guztiak berrikusi zituen. Akatsen azterketa eta zuzenketa zehatz-mehatz bat egin ondoren, lerro fundatzaile jakin batzuk hauteman zituzten European, eta beste batzuk Ekialde Hurbilean.

Aipagarria da, lehenbizi, hamazazpi leinu afrikarretatik (beltzez adieraziak) bat besterik ez dela -L3 deitutakoa- Afrikatik kanporako jauzia egin zuena. Beste era batera esanda, planetako bizilagun guztiak afrikar ama-lerro bakar batetik (Eba bakar batetik) datoz.

L3 lerroak, jada Afrikatik kanpo, N taldea sortzen du Asian, eta hortik R taldea sortuko da Indiako lekuren batean, zeinengandik U taldea sortuko den. Azken hori mendebaldeko Eurasian kokatzen da, Eurasia izenak Europa eta Ekialde Hurbila barne hartzen dituen zona adierazten duelarik.

Geroztik, U talde horrek U5 sortuko du besteak beste, European sartuko den sapiens-lerro (U-ren alaba genetiko) aspaldikoena; baina U5 horrek, Europara sartu aurretik, Ipar Afrikaren zati bat (libiko-berberearra) populatuko duen U6 lerroa (U-ren iloba) sortuko du bere aldetik. Erloju molekularren arabera, U5 lerroak 50.000 urte inguruko antzinasuna dauka eta haren oinordekoak beraren sorlekuko zona gutxituetan besterik ez dira aurkitzen Turkian, Armenian, Azerbaijanen eta Kurdistanen.

Eta U5 Europa osoan aurkitzen den arren, badakigu U-ren iloba zaharrenak, 40.000 urte inguruko antzinasuna duen U5a delakoak, Herrialde "euskal-espainiarrean" duela eraginik handiena. Euskal eremuak, azken glaziazioan Europako babesleku gutxienetarikoa bat izandakoak, jatorrizko dibertsitate genetikaren lagin gehiago zaindu ditu Mendebaleko European beste zona batzuen aldean".

Cro Mañon

Ez da arkeologoa izan behar goian aipatutako aro horrek gizakiaren eboluzioan zein garrantzia izan duen jakiteko. Bada horiek lehen aipatutako Kantabria-Euskal Herria-Akitania eremuan kokatzen da. Trenbidea egiterakoan, Atapuercan gertatu zen moduan, aurkitu ziren Cro Mañonen aztarnak. "Cro" hitza okzitanieraz koba esan nahi du. Aurkikuntza Les Eyzies

de Tayac izeneko ingurunean izan zen. Frantsesek horrela itxuraldatu dituzte gure berbak "Les Eyzies", "Leiziek" esan beharrean, "Larrun" mendiari "La Rhun" esaten dioten moduan.

Ez hori bakarrik, "Trou de Leize", "Leizandie", "Leissandonie", "Leisarnie", "Leizurie" eta "Leissartroux" moduko toponimoak daude inguruan. Euskal Herrian ere koba garrantzitsuak ditugu eta horien izenak euskarazkoak ere badira: "Santimaniñe", "Ekain"...

Cro Mañon garaiko leizeek euskal izena edukitzea indizio zientifikoa ote da?

Sergio Cardoso

Irakasle hau biokimikan lizentziaduna da, eta Euskal Herriko Unibertsitateak Gasteizko campusean duen DNA bankuan ari da lanean. Gasteizko Euskal Filologiatik hurbil egon arren, badirudi bere lanak oraindik ez direla ezagutzen unibertsitateko kideen artean. Aipamena egunkaritik hartuta dago zuzenean eta zinez interesgarria da egin duen lana:

"Bere tesian, zehazki, duela 15.000 urte giza taldeek sortu zituzten hiru aterpe horietako bat aztertu du, egungo Euskal herriko eta inguruko lurrek osatzen zutena. -Frantziako hego mendebaldetik Kantauriar mendizerrako ekialderainoko eremua hartuko luke-.

Gaur egungo laginak aztertu, Europako bertze hainbat giza populazioen inguruko datuekin alderatu, eta ondorio nagusi eta argia atera du: duela 15.000-20.000 urte hemengo aterpera heldu ziren gizakiek garatu zituzten ezaugarri genetikoak islatzen dira, neurri batean, egungo gizakien DNAn. -Bertze populazioekin alderatuta, aldea nabarmena da-.

Duela 15.000-20.000 urte, izotzak Europa hartu zuen. Britainiar irlak, Eskandinavia, Frantziaren zati bat eta Alemania, dena gelditu zen izotzaren pean. Inguruan bizi ziren giza taldeek hegoalderantz jo zuten babes bila, bide bera egin baitzuten haiek ehizatzen zituzten animaliek. Hiru aterpe nagusi sortu ziren: Balkanetakoa, Ukrainiakoa eta eremu franko-kantauriakoa. Milaka urtez gelditu ziren bertan aterpe horietara ailegatu ziren giza taldeak. Hau da, eremu txiki batean gelditu ziren denbora luzez.

Denbora horretan, eta baldintza horietan ezaugarri genetiko zehatzak garatu zituzten. Klimak hobera egin zuenean, eta izotza desagertu zenean, iparralderantz jo zuten giza taldeek, berriz ere, eta haien eskutik, milaka urtez garatu zituzten ezaugarri genetiko horiek Europa osora zabaldu ziren".

Hacha eta aizkora

Baina ikerle "friki" batzuek egin duten modura, orain hizkuntzan kokatuko dugu gure gogoeta, ikerketa egiteko genetika bezain harrobi ona da eta. Euskara abiapuntua eta helmuga aldi berean. Horrela, euskararen zenbait hitzen etimologiek zein garrantzia duten ikusiko dugu.

Arkeologoek ondotoxo dakiten moduan, gizakiaren eboluzioan tresna bat izan dugu jaun da jabe: aizkora. Seguruenik lehenengo lan tresna izan zen eta gure arbasoen bizimodua erabat

aldatu zuen, bai janaria lortzeko orduan eta baita bizitzaren beste eginkizun asko bideratzeko orduan ere.

Bi aizkora mota bereiztu daitezke paleolitiko garai luzean: hasierakoa, haitz huts batez egindakoa eta milaka urte beranduago sortu zen aizkora kirtenduna. Bitxia bada ere, euskaraz bi garaietako aizkorak izendatzeko hitzak ditugu: "hacha" (atxa) eta "aizkora". Gazteleraz mantentzen den hitza mendebaldekoa ere bada, Atxarte, Atxuri, Udalatx... eta ehundaka toponimotan agertzen den "atx" berba bera. Eta bigarrena ekialdekoa da "aitz" erroa duelako. "Kora" erro bakarra izan daiteke ("korapilo"?) edo bi osagai izan: "k-ora" (oratu).

Baina bi hitz horiez gain, askotan aipatu diren baina sekulan santan dagokien garrantzia jaso ez duten beste paleolitiko garaiko eleak ditugu: aitzurra, artaziak, azpila... gure arbasoek sortutako tresnak paleolitiko garaian ere. Hauek ez al dira indizio zientifikoak gure hizkuntza latina baino zaharragoa izateko eta, zenbait hitz latinetik hartu baino, beste hizkuntzei utzi egin dizkiela?

Josemiel Barandiaran

Gure historiaz hitz eginez gero, derrigorrez aipatu beharra dago. Josemielek ederki islatzen du zientzian egon beharreko paradigma: "persona baten jakintza mailak bere apaltasun mailarekin bat etorri beharko luke". Edo Greziako filosofoak esaten zuen bezala, ezer gutxi dakigula baino ez dakigu. Euskararen jatorriaren gaian horixe gertatzen da: oso gutxi dakigu, den-denok, eta bitxia egiten zaigu jatorriaz ganorazko ezer guttiz zientifikoki argitu gabe egon barik, mahai gainean dauden proposamenak zirikatzea argudiorik eman gabe.

Ba Josemielek argi esan zuen: euskaldunok, gutxienez, 8.500 urte daramatzagu hemen. Eta horrek zer esan nahi du? Ba, besteak beste, Ibarretxe lehendakari ohiak orain gutxi esan zuen moduan, "euskara, seguruenik Europako hizkuntza zaharrenetakoa..." dela.

Eta latinak gure moduko 8.500 urtetako historia luzea eduki izan balu, baliteke hitz asko hortik hartuak izatea baina hizkuntza berriagoa omen denez, toponimian ditugun "pago", "eta" eta beste hainbat berba nork nori hartu dizkion gai eztabaidagarria dela uste dugu, edozelango ikerketa egin gabe latinetik hartu ditugula baieztatu beharrean.

Hau hobeto ulertzeko genetisten mapa ere begiratu beharra dago. Glaziazioan Europa osoko bi babesgune ziren: Kantabria-Euskal Herria-Akitania eta Balkanak-Ukrania inguruan. Baina Italiako penintsulan ez da gezirik ikusten. Horrek eragina eduki ahal du latinaren adinarekin?

Estornes Lasa

Joxemilekin batera, euskal jakintzaren bidegileetako bat ere aipatu nahi dugu: La Gran Enciclopedia Vascaren sortzailea izan zen Estornes jauna. Honek, aztarna arkeologikoen antzintasuna ikusita (zaharrenak Kantabria-Euskal Herrian-Akitanian eta berriagoak Frantziako iparralderantz eta Europako ekialderantz hurbildu ahala berriagoak izanik),

glaziazio ostean, zibilizazioa hego-mendebaldetik, ipar-ekialdera zabaltzen joan zela aipatu zuen, oraingo ikerketa genetiko guztiek ezin hobeto baieztatu duten gauza bera.

Beraz, ezin dugu antzineuskara Europa erdiko hizkuntza izan zela baieztatu, baina ezin dugu ukatu ere, inondik inora, horrela ez zela izan. Hori esaten duten gero eta indizio zientifiko gehiago dagoelako. Pilo bat azken bolada honetan. Agian Vennemannek arrazoi duela.

Zorionez, euskarak, hizkuntza askok ez duten gauza bat dugu, bi izen harrotasunaren gradua neurtzeko: harrotasuna bera eta harrokeria. Bigarrenean erori gabe, lehenengoa zergatik ez izan. Zergatik ez egon harro, gure arbasoek paleolitikoan sortu zuten hizkuntzaren oinordekoak izateaz?

(...)

KOLDO URRUTIA Euskararen Jatorriaren Biltzarreko kidea da